

ANTSOAIN

Deialdia, mantentze-lan orokorren zerbitzu anitzetako hiru lanpostu, funtzionarioen araubidekoa, oposizio-lehiaketa bidez betetzeko

Antsoaingo Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak, 2010eko uztailaren 21ean, erabaki du Antsoaingo Udalaren mantentze-lan orokorren zerbitzu anitzetako hiru lanpostu, funtzionarioen araubidekoa, oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdia onestea. Hona hemen oinarriak:

OINARRIAK

1. oinarria.-Arau orokorrak.

Deialdi honen xedea da Antsoaingo Udalaren mantentze-lan orokorren zerbitzu anitzetako hiru lanpostu, funtzionarioen araubidekoa, oposizio-lehiaketa bidez betetzea. Plantilla organikoan honelaxe zehaztua daude:

Kodeak: 5002-5003-4006 Mantentze-lan orokorren zerbitzu anitzak. Maila: D.

Deitutako lanpostuak, araubide juridikoa, plantilla organikoan duten identifikazio zenbakia, atxikipen esparrua eta destinoa jendaurrean jarriko dira hautapen prozesuko izangai onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onesten duen ebazpenaren eranskinean.

1.1. Izendapenak nomina eta plantillako funtzionario bilakatuko dituzte izendatuak, Antsoaingo Udaleko funtzionarioentzat indarra duten xedapenetan ezarrita dauden eskubide eta betebeharrak guztiak dituztela. Gizarte Segurantzako araubide orokorrean inskribatu eta kidetuko dira, araubide horretan aurreikusitakoaren babesean.

Erranak erran, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutua onetsi zuen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bederatzigarren xedapen gehigarriaren 3. puntuan xedatua aplikatzearen ondorioz, izendatuak Nafarroako administrazio publikoen edozein montepiotako eskubide pasiboen araubidekoak badira, bi aukera izanen dituzte: Antsoaingo Udalaren funtzionarioen montepioan segitzea, martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legearen bidez arauturiko eskubide pasiboen araubidearen babespean, edo Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean sartzea.

1.2. Lanpostuak D mailako lanpostuak izanen dituzte, uztailaren 4ko 158/1984 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Lanpostu Behin-behineko Erregelamenduan eta Antsoaingo Udalari aplikatzen ahal zaizkion gainerako xedapenetan ezarritakoari jarraikiz.

1.3. Lanaldia urtero ezarriko da, eta zerbitzuaren beharretara egokiturik, administrazio organo eskudunek noiznahi aldatzen ahalko baitute.

1.4. Lanpostuak dagozkion eginkizunak hauek dira:

Mantentze-lan orokorren eta obren lantaldearen berezko jarduketekin ikusteko duten zerbitzu anitzak; hona hemen horietariko batzuk, aipamen hutsez eta bertzelakoak baztertu gabe:

Udal bulego, instalazio eta biltegi-tako igeltserotza lanak oro har, eta mantentze-lanetakoak.

Zerbitzuaren berezko makineriaren, lanabesen eta tresnen maneiatzea, mantentze-lana eta konpontzea.

Hiri altzariak paratzea eta haiei dagozkien mantentze-lanak egitea: zutoinak, seinaleak, kale-argiak, bankuak, iturriak etab.

Altzariak eta tresnak lekuz aldatu eta paratzea. Agertokiak, hesiak eta gainerakoak muntatzea eta desmuntatzea, besta eta ekitaldi publikoetan.

Ibilgailuak gidatzea eta makineria maneiatzea, obra txiki eta ertainetakoak badira (B motako gidabaimena arte, hori barne).

Udalaren azpiegitura eta egoitzetan mantentze eta konponketa lanak egitea: iturgintza, elektrizitatea, pintura, igeltserotza, soldadura, zurgintza, mekanika, garbiketa, zangak ireki eta ixtea.

Eskatzen zaizkien hobekuntzako instalazio berriak eta jarduketak egitea, betiere beren mailakoak badira.

Lanean erabiltzen diren ibilgailuetako artatze eta mantentze-lan oinarritzakoa egitea.

Udaleko gainerako zerbitzuekin lan egitea, hala eskatzen zaionean.

Kanpoko zerbitzuekin koordinatzea, langile espezializatuak behar direnean.

Halaber, zerbitzu anitzetako lanpostuaren eginkizun izanen dira honako eginkizun orokorrak:

Segurtasun eta higiene arauak betetzea, lan bakoitzean erabiltzen diren babes ekipo egokiak behar bezala baliatuta.

Udalaren azpiegitura, egoitza eta ekipamenduetan ikusten diren akats, matxura eta hausturak aldi-aldi koordinatzaileari jakinaraztea.

Zerbitzuak hobetu daitezkeen sustatu eta laguntzea, hobekuntzarako lagungarri izan daitezkeen ekintza eta aldaketak proposatuz.

Lanerako ezarritako arau, prozedura eta argibide guztiak ezagutu eta aplikatzea.

Kasuren batean behar izanez gero, egoerari egokitzea, bere lanorduekin malgutasunez jokatzuz, ezarritako lan programa eta zerbitzuaren beharrak betetzeko.

Udalaren ordenantzak betetzen ote diren kontrolatu eta begiratzea, eta hirigintza eta ingurumen gaietan ikuskatzea, lizentzia eta obrei, eremu publikoaren okupazioari, isurketei eta abarri buruzko araudia jaso eta betetzen ote den begiratuta.

Bide eta eremu publikoak egoera onean ote dauden begiratzea, baita udal eraikinak ere, eta haien mantentze-lan eta/edo hobekuntzarako proposamenak egitea.

Edozein eratako udal zerbitzuak ematea, eta hala Alkatezako nola organo delegatuek bere esku uzten dituen beste edozein zeregin; betiere, bere eskumen, maila eta kategoriaren barrenean.

2. oinarria.-Oposizio-lehiaketako izangaien betebeharrak.

2.1. Oposizio-lehiaketa honetan onartuak izateko, izangaiak, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean eta agiriak aurkezteko epearen barrenean (deialdiaren 7.3 atalean adierazia) eta lanpostuaren jabetza hartu arte, baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Espainiarra izatea, edo Europar Batasuneko bertzeko estatu batekoa, edo, Europar Batasunak izenpetu eta Espainiak berretsitako nazioarteko itunak direla medio, langileen zirkulazio librea aplikatzen den eremuko estatu batekoa.

Orobat, espainiarren eta Europar Batasuneko bertzeko estatuetako edo aipatu nazioarteko itunek ukitutako estatuetako herritarren ezkontideek parte hartzen ahal dute, zuzenbidez bereizita ez badaude; halaber, haien ondorengoek eta ezkontidearenek, zuzenbidez bereizita ez badaude, 21 urtetik beheitikoak badira, edo goitikoak, haien kontura biziz gero.

b) Hemezortzi urte beteak izatea eta erretiroa nahitaez hartzeko ezarritako gehieneko adina ez izatea.

c) Eskola Graduatuko titulua, Lanbide Heziketako Lehen Mailako titulua edo horien baliokidea izatea, edo eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean titulu hori eskuratzeko moduan egotea.

d) Bete behar dituen eginkizunetan aritzeko adinako gaitasun fisiko eta psikikoa izatea.

e) Eginkizun publikoak betetzeko desgaitua edo gabetua ez izatea, eta inongo administrazio publikoren zerbitzutik bereizita ez izatea.

Espainiako nazionalitatea ez duten izangaiak frogatu beharko dute beren estatuko funtzio publikoan sartzea eragozten dien diziplina zehapenik edo zigor penalik ez dutela.

f) B motako ibilgailuen gidabaimena izatea.

2.2. Arestiko betebeharrak, azterketa gainditu eta lanpostua eskuratzen duen izangaiak egiaztatu beharko ditu, deialdi honen 7.3 oinarriak xedatzen duen eran eta epean. Hori guztia bete beharko da eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna baino lehenago, baita hautabide osoan ere, izendapen eguna arte.

3. oinarria.-Eskabideak.

3.1. Deialdi honetan parte hartu ahal izatea eskatzeko, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira Antsoaingo Udalaren erregistroan, 30 egun naturaleko epean, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, egun horretako 14:00ak arte. Eskabideak III. eranskinean argitaratutzen den ereduari lotuko zaizkio. Horiek Udaleko bulego orokorretan eskura daitezke, baita Interneten ere, www.ansoain.es helbidean. Eskabideetan izangaiak adierazi beharko dute eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela.

3.2. Izangaiak Nortasun Agiri Nazionalaren kopia aurkeztu beharko dute eskabideekin batera.

3.3. Eskabideak aurkezteko epea luzaezina da.

3.4. Izangaiek, eskabideekin batera, I. eranskinean ezarritako merezimenduak lehiaketa fasean baloratuak izan daitezten, merezimendu horiek egiaztatzeko dokumentuak aurkeztu beharko dituzute.

4. oinarria.-Izangaiei onarpena eta erreklamazioak.

4.1. Eskabideak aurkezteko epea burututakoan, Antsoaingo Udaleko alkateak ebazpena emanen du, onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda onesteko, eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko aginduko du.

4.2. Izangai baztertuek hamar egun balioduneko epea izanen dute, behin-behineko zerrenda Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik, erreklamazioak aurkezteko eta, akatsik egin badute, haiek zuzentzeko.

4.3. Erreklamazioetarako epea bukatutakoan eta haiei erantzun ondotik, alkateak ebazpena emanen du, onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onesteko, eta www.ansoain.es Udalaren web orrian argitaratzeko aginduko du.

Ebazpen horretan berean zehaztuko da probak non, noiz eta zer ordutan hasiko diren.

5. oinarria.-Epaimahaia.

5.1. Epaimahaiak kide hauek izanen ditu:

Mahaiburua: Antonio Gila Gila, Antsoaingo Udaleko alkatea.

Ordezkoa: Arantxa Biurrun Urpegui, Antsoaingo Udaleko zinegotzia.

1. mahaikidea: Manuel Millera, Antsoaingo Udaleko arkitektoa.

Ordezkoa: noren eskutan uzten duen, huraxe.

2. mahaikidea: Pedro Herrera Triguero, Antsoaingo Udaleko mantentze-lanetako arduradun nagusia.

Ordezkoa: José Ramón Fernández Iriarte, Antsoaingo Udaleko kirol instalazioetako arduraduna.

3. mahaikidea: Alfredo García Falces, Antsoaingo Udaleko lorezaina.

Ordezkoa: Alfredo Iglesias Lacasa, Antsoaingo Udaleko iturgina.

4. mahaikidea: Carmelo Jiménez, Antsoaingo Udaleko hirugarren alkateordea.

Ordezkoa: Manuel Benítez Trinidad, Antsoaingo Udaleko laugarren alkateordea.

5. mahaikidea: Alfredo Pérez Garde, Antsoaingo Udaleko langileen legezko ordezkaria.

Ordezkoa: Soledad Mateos Trujillano, Antsoaingo Udaleko langileen legezko ordezkaria.

Idazkaria: Antsoaingo Udalekoa, hizpidea duela baina botorik gabe.

Ordezkoa: Aurrekoak hautatzen duena, hizpidea duela baina botorik gabe.

5.2. Epaimahaia hautaprobak egin baino lehen eratuko da eta bere eraketak eta jarduketak balio izateko kideen erabateko gehiengoa beharko da elkartu.

Kide anitzeko organoaren eraketak eta jardunak balioa izateko, mahaiburuak eta mahaikide idazkariak edo haien ordezkoez bertan egon beharko dute.

5.3. Epaimahaiko kideek parte hartzeari uko egin beharko diote eta deialdia egin duen organoari hala jakinarazi, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Foru Legean aurreikusita dauden egoerak gertatzen direnean.

Izangaiek, halaber, zilegi dute mahaikideak errefusatzera, egoera horietako bat gertatzen denean.

5.4. Epaimahaiak gehiengoz erabakiko ditu deialdiaren oinarriak ulertu eta aplikatzeko moduz sor daitezkeen afera guztiak.

5.5. Epaimahaiak aholkulari adituak laguntza izan dezake, proba batzuetan nahiz guztietan laguntzeko. Aholkulari horiek beren espezialitate teknikoetan baizik ez baitira ariko, horietan bakarrik emanen diete laguntza epaimahaikoei.

6. oinarria.-Oposizio-lehiaketaren nondik-norakoa.

Proba bakoitzerako dei bakarra egingen da. Izangaiek nortasun agiri nazionala, pasaporte edo gidabaimena eraman beharko dute. Bazterturik geldituko dira agertzen ez diren izangaiek edo aipatu agiriatariko baten bidez beren nortasuna frogatzen ez dutenak.

6.1. Lehiaketaldia.

Epaimahaiak I. eranskinean ematen den baremoari jarraikiz baloratuko ditu merezimenduak. Horiek, eskabideak aurkeztearekin alegatu eta agiri bidez egiaztatu beharko dituzte izangaiek. Horretarako, jatorrizko agiriak edo behar bezala konpultsatuta aurkeztu beharko dira.

Gehienez ere 10 puntu emanen dira.

Oposizio-lehiaketan parte hartzeko eskabidea egiterakoan aurkeztu eta egiaztatu beharko dira merezimendu guztiak, agirien bidez, bertzenaz aurkeztu gabetzat joko dira.

Epaimahaiak ezin izanen du, inola ere, aurkeztu gabeko edo agirien bidez egiaztatu gabeko merezimendurik kontuan hartu.

6.2. Oposizioaldia.

6.2.1. Izangai onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda argitaratzean adieraziko da zein egun, ordu eta tokitan hasiko den oposizioa.

Gero epaimahaiak, behar den garaian, hurrenez hurren eta arauzko eran iragarriko ditu gainerako probak.

6.3. Oposizioaldiak ondoko ariketa hauek izanen ditu, eta gehienez ere 90 puntu lortu ahalko dira bertan:

Lehen ariketa: proba honetan test moduko 20 galderari erantzun beharko zaio, zenbait erantzun baina zuzena bakarria izanik. Deialdiko II. eranskinean aipatzen diren gaiei buruzkoak izanen dira galderak.

Proba honetan gehienez ere 40 puntu emanen dira, eta proba gainditzeko gutxienez ere 20 puntu erdietsi behar dira. Erantzun okerrak zehatuko dira, alegia, oker bakoitzeko 0,50 puntu kenduko dira. 20 puntu horiek eskuratzen ez dituzten izangaiek baztertuak izanen dira.

Bigarren ariketa: praktikoa, hau da, proba praktikoa bat edo gehiago eginen dira, arlo hauetakoak: makineria, igeltserotza, iturgintza eta elektrizitatea, soldadura, mantentze-lan orokorrak, obra txiki edo ertainteko makineria arina maneiatzea, edota bertzelako edozein, betiere deialdi honetako 1. oinarrian aipatzen diren eginkizun edo zerbitzuetakoak. Epaimahaiak zehaztuko du ariketa horretako probak egun bakarrean edo gehiagotan eginen diren, bai eta zenbat denbora iraunen duten ere, betiere haien edukiaren arabera.

Ariketa honetan gehienez ere 40 puntu lortzen ahal dira, eta ariketa bakoitzaren balorazio proportzionala eginen da, alegia, 40 puntu horien eta egin beharreko proba kopuruaren zatidura izanen da; betiere proba guztiak hartuta, 20 puntu lortu behar dira. 20 puntu horiek lortzen ez dituen izangaia baztertuko da.

Hirugarren ariketa: buruz buruko elkarrizketa eginen da epaimahaiarekin, izangaiek deialdiaren xedeko lanpostuari eta haren ezaugarriei nola egokitzen zaizkien baloratzeko.

Proba honetan gehienez ere 10 puntu lortzen ahal dira, eta proba gainditzeko gutxienez ere 5 puntu atera behar dira, bertzenaz puntuazio hori lortzen ez duen izangaia baztertuko da.

6.4. Oposizioaldiko ariketa bakoitza burututakoan, jendaurrean jarriko da, Herriko Etxeko iragarki oholean eta Udalaren web orrian, azterketa gainditu duten izangaien zerrenda eta atera duten kalifikazioa, baita hurrengo ariketa noiz non eginen den, gutienez ere berrogeita zortzi ordu lehenago.

7. oinarria.-Probak gainditu dituztenen zerrenda eta epaimahaiaren proposamena.

7.1. Azken ariketaren kalifikazioa burututa, epaimahaiak probak gainditzeko dituztenen zerrenda eginen du, puntuazio handienetik txikienerako ordenan antolatua, bakoitzak ateratako kalifikazioarekin. Zerrenda Antsoaingo Udalaren iragarki oholean argitaratuko da, eta web orrian: www.ansoain.es.

Hautaproben azken emaitzan berdinketarik bada, oposizioaldiko ariketetan -hurrenez hurren eta ordena berean- puntuaziorik altuena lortu dutenen alde ebatziko da.

7.2. Epaimahaiak Alkatetzari igorriko dio, espediente osoarekin eta aipatu zerrendarekin batera, puntu gehien erdietsi duten izangaiek izendatzeko proposamena, deialdiko lanpostu kopuruan sartzen badira; proposamena loteslea izanen da. Proposamen hori Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da.

7.3. Izendapen proposamena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta 30 egun naturaleko epearen barranean, proposatutako izangaiek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte Udalaren Erregistro Orokorrean:

a) Nortasun agiri nazionalaren fotokopia konpultsatua, edo izangaiaren nazionalitatea nahiz nortasuna egiaztatzen dituen berteze agiri baliokideren bat.

b) Deialdiaren 2. oinarrian eskatzen den tituluaren fotokopia konpultsatua, edo hura eskuratzeko eskubideak ordaindu izanaren gordekinarena.

c) Zinpeko aitortpena, eginkizun publikoetan aritzeko desgaitua edo gabetua ez dagoela eta inongo administrazio publikoren zerbitzuetik baztertua izan ez dela dioena.

- d) Antsoingo Udaleko Prebentzio Zerbitzuak egindako osasun txostena, karguaren eginkizunetan aritzea eragozten dion eritasunik nahiz akats fisiko edo psikikorik ez duela frogatzeko.
- e) Zin egite edo hitz ematea, Nafarroako Foru Eraentza begiratu, Konstituzioari eta legeei men egin eta karguaren eginkizunak zintzo beteko dituela.
- f) Europar Batasuneko herritarra izanez gero, egoitza-txartela.
- g) Europar Batasunetik kanpoko bada, bertan bizitzeko eta lan egiteko baimena.
- h) Familia liburua, 2.1.a) oinarriko bigarren leerroaldean sartzen diren herritarren kasuan.
- i) B kategoriako gidabaimenaren fotokopia konpultsatua.

Deialdi hau egin ez duen Nafarroako bertze administrazio publikoren bateko langile finkoek, gainera, aurreko administrazio espediente pertsonalean ageri diren inguruabar eta aurrekari guztiak frogatzen dituen ziurtagiria beharko dute aurkeztu, hots, sarrerari, antzinatasunari, mailari, egoera administratiboari eta abarrei buruzkoa.

7.4. Aipatu epearen barnean, eta aski arrazoituriko ezinbertzeko kasuetan izan ezik, proposaturiko izangaiek aipatutako agiri horiek aurkezten ez badituzte, ezin izanen dira funtzionario izendatu, eta beraz egintza guztiak deuseztaturik geldituko dira, betiere deialdian parte hartzeko eskabidean egin faltsukeriagatik legokiekeen erantzunbeharra ukatu gabe.

7.5. Aurreko atalean azaldutakoa gertatuz gero, Alkatetzak bertze izangai batekin beteko du hutsunea, gainditu duten izangaiekin 7.1 atalean heldu den zerrendan ondo-ondotik heldu denarekin; harekin ere aurreko ataletan adierazi bezala jokatuko da.

8. oinarria.-Izendapena, lanpostu hutsen esleipena eta jabetza hartzea.

8.1. Hautapen prozedura buruturik, Alkatetzak, ebazpen baten bitartez, aurreko oinarrietan ezarritakoa betetzen duten izangaiek Antsoingo Udaleko funtzionario izendatuko ditu, mantentze-lan orokorren zerbitzu anitzetako lanpostuan ari daitezen, eta lanpostu hutsak esleituko dizkie.

Izendapena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

8.2. Izendatutako izangaiek hilabeteko epean hartu beharko dute lanpostuaren jabetza, izendapena jakinarazten denetik aitzina. Ezinbertzekoetan salbu, aipatu epean lanpostuaren jabetza hartzen ez badute, Antsoingo Udaleko funtzionario bihurtzeko eskubide guztiak galduko dituzte. Horrela gertatuz gero, 7.4 eta 7.5 oinarriek ezarritakoari jarraikiko zaio.

9. oinarria.-Errekurtsoak.

Deialdi honen aurka, nahiz bere oinarrien eta aplikazio egintzen aurka, errekurtsu hauetakoren bat aurkez daiteke, aukeran:

- a) Administrazioarekiko auzi-errekurtsua, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko arlo bereko salari zuzendua, bi hilabeteko epean, erabaki hau edo errekurritzen den egintza argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik hasita, organo egileari errekurritzeko asmoaren berri emanik; edo bertzenaz,
- b) Gora jotzeko errekurtsua, zuzenean Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, erabaki hau argitaratu edo errekurritzen den egintza jakinarazi eta biharamunetik hasita.
- c) Berraztertze errekurtsua, egintza eman duen erakundean berean, hilabeteko epean, jakinarazi eta biharamunetik aitzina.

Epaimahaiaren egintzen aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkez daiteke, deialdia egin duen udal organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazten denetik hasita.

Antsoainen, 2010eko uztailaren 21ean.-Jarduneko alkatea, Jesús Esteban Laínez.

I. ERANSKINA

MEREZIMENDUEN BALORAZIOA, LEHIAKETALDIAN

Lehiaketaldiko puntuazioa, guztira, 10 puntu izanen da, gehienez ere.

1. Lanpostuko esperientzia:

1.1. Nafarroako administrazio publikoetan zerbitzu anitzen, kirol instalazioen eta/edo mantentze-lan orokorren enplegatu lanpostuetan zerbitzu egiteagatik: puntu 1 urte osoko edo urte osoa ez bada proportzionalki dagokiona, gehienez ere 3 puntu izanik.

2. Prestakuntza ikastaroak egitea, 2 puntu gehienez:

a) Bete behar den lanpostuari dagozkion lanen gaineko ikastaro behar bezala antolatuak egiteagatik, gehienez ere 2 puntu:

20 orduko ikastaroa edo ordu gehiagokoa: 0,50 puntu.

20 ordu baino gutxiagoko ikastaroa: 0,25 puntu.

3. Euskaraz jakitea; gehienez ere, 5 puntu.

a) Euskaraz jakitea; EGA titulua edo Hizkuntza Eskola Ofizialaren Gaitasun Agiria aurkeztuta: 5 puntu.

b) Titulurik eduki ezik, Hizkuntza Eskola Ofizialean gainditutako maila bakoitzagatik gehieneko puntuazioaren bortzena emanen da; aldiz, hamabirena, Nafarroako Gobernuak antolatutako ikastaroetan gainditutako urrats bakoitzeko.

Lehiakideek alegatutako merezimenduen gaineko azalpenak eta datu osagarriak eskatzen ahal ditu epaimahaiak noiznahi.

II. ERANSKINA

1. gaia.-Aritmetikako eta geometriako oinarriko erregelak.

2. gaia.-Idazketako eta ortografiako oinarriko arauak.

3. gaia.-Laneko segurtasun eta higienearen gaineko arauen eta oztopo arkitektonikoen gaineko arauen oinarriko ezagutzak.

4. gaia.-Antsoingo Udalaren organigrama, antolamendua, ordezkariak eta organoen eginkizunak.

5. gaia.-Igeltserotzako kontzeptu orokorrak. Erramintak. Materialak. Zolatzea eta alikatatzea. Enkofratuak eta murrak zutitzea.

6 gaia.-Ur hornidura. Araztegiak, putzu septikoak. Udalaren eskumenak. Saneamendua

7. gaia.-Eraikinetako banaketa koadroak, potentzia kontrolatzeko etengailua, magnetotermikoak eta diferentzialak.

8. gaia.-Oinarriko argi-zirkuituak: etengailuak, konmutadoreak, entxufe-oinak, lanparak, pitzarazgailuak eta erreaktantziak.

9. gaia.-Iturgintzako eta berokuntzako instalazioen mantentze-lanak: aparatu sanitarioak, txorrotak, zisternak, sifoak, berokuntza zirkuituak, zirkuituak airez betetzea eta purgatzea, galdara-gelak eta haien osagai bereziak.

10. gaia.-Zurgintzako oinarriko lanak: ate eta leihoak doitzea, sarrailak, sarraila-zilindroak eta pertsianak.

11. gaia.-Obra txiki edo ertainetako makineria maneiatzea.

12. gaia.-Antsoingo udal mugapearen ezagutza.

13. gaia.-Soldadudaren ezagutza.

III. ERANSKINA

ESKABIDE EREDUA

Izena:, adinez nagusia, NAN zk.:, sorteguna:,
sorterria: (.....), helbidea: (.....),
karrika:, zenbakia:, posta kodea:, telefonoa:

ADIERAZTEN DUT:

Antsoingo Udaleko mantentze-lan orokorren zebitzu anitzetako hiru lanpostu oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdian onartua izatea eskatzen dudala.

Karguan aritzea eragozten didan eritasun edo akats fisikorik ez dudala.

Ez dudala indarra duten xedapenetan ezarritako ezintasunik.

Ez naizela diziplina espediente bidez inongo Administrazio Publikoren zerbitzutik bereizia izan, eta ez nagoela desgaitua eginkizun publikoak betetzeko.

Badudala deialdian eskatzen den titulazioa.

Eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean, behar diren baldintza guztiak betetzen ditudala.

Deialdia arautzen duten oinarriei men egiten diedala eta lotesletzat hartzen ditudala.

Honekin batera, NANaren fotokopia eta B motako ibilgailuendako gidabaimena badudala erakusten duen ziurtagiria aurkeztu ditudala.

Horrenbertzez:

Eskabide hau onar dezazun eskatzen dut eta, beraz, Antsoaingo Udalaren zerbitzuko mantentze-lan orokorren zerbitzu anitzetako hiru lanpostu, oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdian onar nazazula (deialdia zenbakiko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen,(e)an.

Datuen babesa. Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 1999ko abenduaren 13ko Lege Organikoan ezarritakoa betetzeko, aditzera ematen zaizu inprimaki honetan ematen diren datu pertsonalak hautapen prozeduran Udalak dituen eskumenak erabiltzeko baizik ez direla erabiliko eta Antsoaingo Udalaren datu basea osatzen duten fitxategiei batuko zaizkiela. Fitxategietan sartu, datuak zuzendu eta ezabatzeko eta horien aurka jotzeko eskubideak Antsoaingo Udalarari zuzendurik erabiltzen ahalko dituzu.

Antsoainen, 20.....ko (a)ren (e)an.

(Eguna eta sinadura)

Antsoaingo Udaleko alkate udalburua.

Iragarkiaren kodea: L1012467